

IREKIERA OFIZIALA

Pilar Valenciano
Hondarribiako Udal Kirol Teknikaria

Blanca Aranguren
GKEF-ko lehendakari ordea

AURKEZLEA

Amaia Elizondo
GKEF-ko zuzendaria

Jarduera fisikoa eta AEN

ESKU HARTZEKO JARRAIBIDEAK

2019ko
AZAROAK 30
HONDARRIBIA-KO
kultur etxean

Izen-ematea dohain ondorengo estekan

<http://bit.ly/Jardunaldia-Hondarribia>

IZEN EMATE EPEA: AZAROAK 22

Jarduera fisikoa gizabanakoaren garapen integrala lortzeko ezinbestekoa izango da, bai haurtzaroan, baita bizitzaren ziklo guztian zehar ere. Era egokian burutuz gero, norbanakoaren bizi kalitatean eta osasun fisiko, psikiko, sozial nahiz emozionalean onurak ekarriko ditu. Gure aisialdiaren parte da eta komunitatean integratzeko aukera ematen digu.

Kirol praktika eta aisialdiko jardueretan parte hartzea, edozein pertsonaren garapen integralerako alderdi garrantzitsua da, baita desgaitasunen bat duten pertsonentzako ere.

Jarduera fisikoaren inguruko ikerketek frogatu dutenez, kirolak osasun maila orokorra hobetzen laguntzen du, estresa kontrolatuz, abilezia motoreak nahiz norbere buruarekiko konfiantza areagotuz, autonomia pertsonala garatzeko abileziak sustatuz, baita abilezia sozialak garatuz ere, amankomuneko azpiegiturak erabiliaz, norbera bere ingurunean erlazionatu eta integratzeko gaitasunak jorratzen laguntzen du eta.

Adimen desgaitasuna duten pertsonen jarduera fisiko eta kirol jarduerak formakuntza espezifiko eta eguneratua duten teknikarien asistentzia eskatzen dute.

Topaketa honen helburua Autismo Espektroaren Nahasmendua (AEN) duten pertsonekin lanean arituko diren hezitzaileei informazioa eta formazioa eskaintzea da, antsietatea sor diezaieketen egoera edota jarrerak antzemateko irizpideak definituz, baita antsietate egoera hauen aurrean ekiteko jarraibideak proposatuz.

Gonbidatutako adituek ebidentzia zientifikoetan oinarritutako ekarpenak egingo dituzte, AENDun pertsonentzako jarduera fisiko eta kirolaren eremuan erabili ahal izateko komunikazio estrategiak, estrategia metodologikoak eta interbentzio estrategiak planteatuz.

Formakuntza saioaren itxiera mahai inguru partehartzaile batekin egingo da, esperientziak partekatu, zalantzak argitu edota praktika onak elkarbanatzeko asmoarekin.

Helburuak



AENDUN PERTSONEKIN KIROL PRAKTIKARAKO ESKUHARTZEAREN INGURUKO EZAGUTZAK ELKARBANATZEA.

KIROL EGOKITUKO TEKNIKARIEN ARTEKO ESPERIENTZIAK ELKARBANATZEA.

JENDARTEARENTZAKO EZTABAIDARAKO LEKU BALIAGARRIA ESKAINTZEA.

1. HITZALDIA

Jose txo Aramendi Dk.

Osasun Kirol Kirol Medikuntza

"Autismo Espektroaren nahasmenduak eta jarduera fisikoa"




2. HITZALDIA

Olga Rodríguez Ferran Dk.

Kirol Zientzien Fakultateko Irakaslea, Murtziako Unibertsitatean, Jarduera fisiko egokitu eta inklusiboaren inguruko irakasgaietan

"AEN duten pertsonen kirol eskuhartzea, aurrerapausoak eta etorkizunerako erronkak"



3. HITZALDIA

Jesus García Dk.

GAUTENA Gipuzkoako Autismo Elkarteak lan talde teknikoko psikologoa.

"AEN duten pertsonen egiten den eskuhartzearen kontutuan izan beharreko estrategia eta jarraibide orokorrak"



MAHAI INGURUA

Amaia Lopetegi
GAUTENA-ko zuzendaria

Alicia Figueroa
GKEF-ko zuzendari teknikoak

(galderentzako tarteak)